

Ana Erasun eta Paxkal Indo

“Ez dugu beti fakir izan nahi”

Gabon usainean elkarrizketatu ditugu Erasun eta Indo Seaskako lehendakariordeak. Ikasturte hasierako gorabeheren ondoren lasaituta daude, baina urtarrileko bi gertakizun garrantzitsuren zain. Batetik, bulego eragilea osatzekotan dira gero Seaskako lehendakaria aukeratzeko. Bestetik, EEP eta Akademiaren inspektorearekin bilkura dute.

ONINTZA IRURETA

Argazkia: Junkal Amores

“**URRATS SENDOAK** eta iraunkorrak” dira helburu Seaskarentzat. Normalizazioaren irudi ez diren adibide asko dituzte kontatzeko; bata Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako ikasle guztiak biltzen dituen lizeo bakarrarena. Baionan dago lizeoa eta 57 ikasle dira, urruntasunagatik, aste osoa barnetegian igaro beharko luketenak. Azken lau urteetan ordea, ez dute barnetegirik Baionan eta ikasleak dantzan dabilta, Landetako kanpin batean ere igaro dute ikasturtea. Kanboko kolegioko ikasleak autobusez egunero joan-etorrian ibili dira. Aurten gurasoek daramatzate autoz.

Seaska une honetan lehendakaririk gabe dago.

P. Indo: Ez dago halako presarik, lehendakaria inportantea da, baina inportanteak dira 2.500 haurrak, 25 ikastolak, gurasoak, euskara... Tren luze eta azkarrak da Seaska eta ez du esan nahi txoferririk gabe ibiltzen denik.

25 ikastolek Ikastolen Kontseilua osatzen dute eta hor hautatzen dira bederatzi guraso kide eta bi langile bulego eragilerako. Bulegoak egiten ditu planteamenduak eta Kontseiluan dena bozkatzeko da. Seaskaren historian baneratu da demokrazia sistema hori.

Ana Erasun: Bulego eragilean hiru guraso ditugu, herena falta zaigu eta ezin da burua atzeman oinarrikerik ez



Paxkal Indo eta Ana Erasun. Biak Seaskako lehendakariorde dira, Ixabel Xarriton azken lehendakariaren lekukoa ez du inork hartu oraingoz.

dagoelarik, bulego osoa ez osatua, alegia. Ematen diogu garrantzi bera bulegoaren osotasunari eta lehendakaria hautatzeari. Bulego eragilea osatua egotea nahitaezkoa da.

Frantziako Hezkuntza Ministerioari zer daukazue eskatzeko?

A. Erasun: 40 urte beteko ditugu heldu den urtean eta xedea izan beharko luke normalizatzeko bidean jadanik urrats sendoak eta iraunko-

rrak ematea. Ez ibiltzea urtero negoziatzen, urratzen, erresistentzian...

Behar dugu aintzat hartzea daukagun funtzio publikoa. Frantziako Estatuak ikastolak hartzen ditu ikasitxe pribatu gisa eta guk funtzio publikoa betetzen dugu zeren eta Iparraldean hezkuntza publikoan ez dago murgiltze sistemarik, ez dago D eredurik. Seaskak egiten du lan hori.

P. Indo: Funtzio publikoari segiz: sare publikoan herriko etxeen esku dago

Alozeko ikastola txikia

Ana Erasunek kontatu digu nola Seaskak euskararen garapenean eta berreskuratze prozesuan motore soziolinguistiko gisa jokatzen duen, "eta horrek faktura pasatzen digu. Baditugu ikastola txikiak, eremu soziolinguistiko arriskutsuan direnak. Alozekoa (Zuberoa) adibidez, 12-14 ikasleekin. Seaskarentzat kostu handiko ikastola da, baina altxor ikaragarria, familia transmisioa ikaragarri ahultzen ari delako herri horietan eta ez badugu orain zerbait egiten galdutzat emango da.

Lan hori EEPren baitako zerbait da, berez ez litzateke Seaskaren gain erori behar. Seaskak funtzio hori betetzen duen heinean eskatzen duena da aintzat hartzea".

ama eskolako eta lehen mailako erai-kinen mantenua. Pribatuak garenez, lege bat edo beste hartzen dute laguntzeko ala ez, horren menpe gara. Adibidez, Hendaian oso ongi lagundua da ikastola eta Baigorri-ri batera ez. Pasatzen da ezerezetik normaltasunera.

Frantziako Estatuak sortutako Euskare-
ren Erakunde Publikoa dago orain.
Nolakoa da harremana?

P. Indo: Hor badira bi gauza. Lehen: erakundearen lan politikoa, politikoe-
k baliatzen dute tresna hori lan politi-
koa betetzeko. Bigarrena: euskalgin-
tzaren egituratzea, euskara laguntzea
ofizialki Iparraldean. Nik neronek ez
dut fitsik beren kontra, egitura berria
da, ez dakigu zertarako baliatua izan-
go den, ez dakit zein heinetaraino
lana egin ahalko duen... jakinez Fran-
tzian zein zaila den lan egitea.

Politikoki baliatzen dute bulego
teknikoa euskararen alde zerbait egi-
ten dela erraiteko. Biziki ongi, baina

Seaskan ez dugu proba handirik
hortarako. Lehen proba da -Estatu-
aren eskizofrenia bistan da-, hiz-
kuntzak ez duela nortasunik, baina
erakunde publikoa sortzen dio eus-
karari. Ze gauza bitxia! Estatuak
berak sortzen ditu konstituzioaren
kontrako diren tresnak. Pixka bat
harritzen naiz, baina zergatik ez. Sei-
nale ona da, batzuetan teknikak era-
man ahal du egiteko modu berria.
Baina oraindik nahi dut ikusi, ez
dakit zertara doan.

Gauza da gero teknikoki gaur egun
zer eman ahal dion EEPk Seaskari.
EEPk bitartekaritza lana egiten du,
Estatuaren eta Seaskaren artean.
Ongi, beharbada norgehiagokak izan-
go dira lehen baino kalmegoak. Urtar-
rilaren erditsuan dugu EEPekin eta
Akademiaren inspektore berriarekin
bilkura; gure lehen bilkura izango da.

Hor zuzenduko al dira kontuak?

P. Indo: Prolema da beti sutan dagoe-
larik suhiltzaileak bidaltzen dituztela
baina behin ere ez dugula lortzen
gerorako ongi prestatzea gauzak. Ikusi
beharko dugu EEPren borondate

“11.000 irakasle postu
kendu nahi dituzte
Frantzian. Guri 11 emango
dizkigute 11.000 kentzen
dituztelarik?”

PAXKAL INDO

politikoa. Hizkuntza politika paperean
biziki ongi da, baina ikusi beharko
dugu errealitatean zer lortzen den.

P. Indo: EEPekin eta euskalgintza-
ren antolaketa berriarekin zera ulertu
behar da: menua badaukagu, baina
platerak ez dira oraino agertuak, eta
egia erran, gose gara orain, jakiteko
zer eta nola janen dugun.

Eraikinak zahar geratu dira

Hala dio Erasunek: "40 urte ditu
Seaskak eta dozena bat egoitza
zaharberitze premia gorrian
daude. Dozena bat milioi euro
beharko ditugu hurrengo hiru-lau
urteetan. Finantza bide iraunkorrak
bilatu beharko ditugu zaharberri-
tzeari erantzuteko. Aipatu behar
dugu Larzabaleko (Nafarroa Behe-
rea) egoitza kasu, finantziamentu
handiena Hegoaldetik etorri dela,
eta ezinbestekoa da gure bizitzara-
ko. Harrigarria da ikustea bai era-
kundearen jarrera eta baita herri eki-
menetik sortzen diren laguntzaileek
nola sostengatzen gaituzten".

Urtarrilekoari begira beraz.

P. Indo: Ikusiko dugu Estatua nola
planteatzen den guri begira, jakinez
aktore berria dagoela gure artean:
EEP. Hori izango da urtarrileko
berrikuntza bakarra. Ez dut uste
halako txekerik eramango dutenik
edo hamar bat irakasle postu
zakuan. Ez dut uste, jakinez gainera
Frantziako egoera, hau da, 11.000
postu kendu nahi dituztela Frantzia
osoan. Guri hamaika eman 11.000
kentzen dituztelarik?

Hau baikorki nola ikusi: badauka-
gu trataera berezia, Seaska bakarrik
doa bilkura horretara.

A. Erasun: Gogortuak gara. Badira
fakirrak, tapizean laban muturrekin,
eta ibiltzen dira horren gainean. Gu
batzuetan horrela ibiltzen gara, bai
gurasoak, irakasleak, langileak, seme-
alabak... Horrek berak ematen digu
sendotasun berezia. Indartuak aterat-
zen gara holako egoera zailetatik.
Baina ez dugu beti fakir izan nahi,
ezta kamikaze ere. 40 urteak ahalik
eta normaltasun handienez bete
nahi ditugu. ■

Babeslea: Irizar



IRIZAR